

“EZ DAGO KONTRA-BOTEREKO PROIEKTU SINDIKALIK MILITANTZIARIK GABE”

ESKERRIK ASKO guztioi, bereziki Kongresu honetan antolakuntza lanetan ibili zareten guztioi. Lan bikaina egin dugu, eta lan horrek indarra eman behar digu jarraitzeko. Inportanteena da orain nola ateratzen garen hemendik. Bateria kargatuta dago, “indarberritzen” leloak esaten duen bezala. Espero dut gure bateria horrela jarraitzea.

BEHARREZKOAK DIREN HIRU GALDERA

1. **ZER GARA?** Abertzale eta klaseko sindikatu bat. Ez da ahaztu behar, bestela...
2. **ZERTARAKO GAUDE?** Langile klasea defendatzeko eta bizi duina aurrera eramateko.
3. **NOLA egin dezakegu?** Antolakuntzaren bitartez eta borroka sindikala eta sozialaren bitartez, horrela politikan eragin zuzena lortzeko. Aldatu nahi dugulako pairatzen dugun politika neoliberalala.

SINDIKALISMOA MUNDU OSOAN ARAZO BERDINAK DITU

1. **EZ BAGARA KONTRA-BOTERE BAT... ZER GARA?** Badago beste aukerarik? Ez, ez dago. Guk ez dugu ikusten? Ikusi besterik ez dago Elkarrizketa Sozialaren Mahaiek ematen dutena. Ezer ere ez. Argi eta garbi esan behar da: beste eredu sindikalik egon badago, baina noraezean daude, krisi larrian daude eta ez garamatzate inora.
2. **JAPONIAR batek joan zen astean Montrealen hauxe esan zuen Kongresu batean.** “Nire herrialdean botere ekonomikoak menpe hartu du Gobernua”. **Gurean ere.** Hemen ere, gobernuek den dena egiten dute botere ekonomikoaren alde. Horrela bada, esan behar da, inolako anbiguotasunik gabe. Honek markatzen du gure diagnostikoa... Eta horrek eramaten gaitu kontra-botere sindikatu bat izatera.
3. **HEDABIDE BATEK DIO ATZO 60 ALDIZ ERABILI NUELA “POLITIKA” HITZA.** Ez da hitz-joko bat hainbeste aldiz esatea. Ezta pentsatu ere. Haiek, botere ekonomikoak eta gobernuek, larru gorritan utzi nahi gaituzte eta sindikalismoa isilaraztea nahi dute. Gu ez gara isilduko. Eztabaida hau muturrera eramaten badugu irabaziko dugu.
4. **SINDIKALISMOAK “IPARRA” GALTZEN DU** hausnarketa eta proposamen politikoak egiten ez baditu. Ergelak izango bagina bezala nahi gaituzte. **Dena da politika. Indiferente izatea ere politika egitea da,** eta haiek hauxe nahi dute: beraiek erabakiak hartzen dituzten bitartean gu ergelak izatea, eta ez gara inozoak.
5. **POLITIKA?** Herritar batek bai, hitz egin dezake politikaz, eta guk ez?

KONGRESUAN ONARTU DITUGU HIRU ESPARRU BERRI LANTZEKO

1. **ALTERNATIBA.** Nahi eta behar dugu hedapen soziala gizartean, pisu politiko gehiago behar dugulako. **BERNARDO ATXAGAK** behin **esan zuen** ELAk Erresistentzia Kutxa duela, eta tresna indartsua dela, baina sindikalismoak **“erresonantzia kutxa”** behar du ere. Egia da. Guk eraiki behar dugu gure **“erresonantzia kutxa”** gizartean, militantzia sozialean, klima eta beste arazo sozialak bereganatzeko. Eskerrik asko Kulturaren Munduari, joan zen astean Erresidentzietako gatazkan bere elkartasuna emateagatik. Gauza asko egin genezake sindikalismoa, mundu kulturala eta politika bat egiten badugu.
2. **GENERO EKITATEAREN PLANA.** Egiten ari gara eta egingo da. Efikaziagatik eta koherentziagatik. Benetan pozgarria da Kongresu honetan emakumeen arazoak behar bezala heldu izana.
3. **PLANIFIKAZIO ESTRATEGIKOA.** Markatu ditugu ildo nagusiak aurrera eramateko. Askok errepikatuko dugu: **“Etsaiek planifikatzen dute gure porrota”**. Erreforma Laboralek hori bilatzen dute. Guk hori kontutan hartuta adi egon behar gara antolakuntzarekin. ELAk ez du irrelebanterik izan nahi.

ZUZENDARITZA BERRIA

Eskertzen dugu jaso dugun babesa eta saiatuko gara gauzak ondo egiten. Baina gogoratu **“talde lana”** izan behar dela esparru guztietan, Batzorde Eragilean, Nazio Batzordean, Eskualdetan, Ekipoetan, Atal Sindikaletan... Horrela, **“talde lana”** egitean, lortzen dugu proiektu kolektibo batek behar duena finkatzea: kultura, lotura, identitatea...

HITZ EGIN DUGU SOBERANIAZ – AUTOGOBERNUAZ

Eskoizian, ALEX SALMONDekin egon ginen hango erreferenduma egin baino lehen. Edinburgon izan zen bilera eta bera kanpaina prestatzen ari zen. Oso interesgarria. Berarekin hitz egiten hiru ardatz agertu ziren prozesu soberanista irabazteko. Lehenengoa, **Identitatea**. Beharrezkoa. **“Ni eskoziarra naiz, ez ingelesa”**. Beharrezkoa, baina ez da nahikoa irabazteko. Bigarrena, **Demokrazia**. Mundu madarikatu honetan jendeak erabaki nahi du, ez zaio batere gustatzen berari eragiten dioten politikak urrun eta modu antidemokratikoan hartzea. Eta, hirugarrena **Eredu Soziala**. Neoliberalismoak suntsitzen du soberania. Neoliberalak ez dira soberanistak, neoliberalismoak gizartearen kohesioarekin amaitzen du.

Eredu Soziala. Geure esparruetatik zer ekarpen egin diezaiokegu soberanismoari? Zein da gure ekarpen nagusia? Gure jendea babesa ematea eta eredu sozial sendo bat eraikitzea, berarekin justizia dakarrena.

Gogoratu dugu doikuntza-politikak neoliberalak **“patriotikoak”** direla, Espainiar Estatua batzen duelako. Ez, ezin da esan gure autogobernua defendatzen dutela PPrekin egiten diren aliantzekin. Horrela Espainia intolerantea indartzen ari da.

ALIANZAS

Hoy por hoy, si algún revulsivo se puede dar en el ámbito vasco, ese puede venir desde el sindicalismo de clase y abertzale. Tenemos que resolver los problemas que existen para desplegar toda su potencialidad, empezando por los desencuentros en la negociación colectiva. Ayer ya explicamos en qué consisten.

MILITANTZIA

“**Dos compañeras de Residencias**”. ¿Que hay detrás?

1. **AKANPADA.** Unas compañeras de Gasteiz fueron a darles ánimo y volvieron a Gasteiz diciendo que el ánimo se lo dieron ellas. Así son las huelgas de verdad y así son las mujeres que participan en ellas. Actos como esos, dan cuerpo e identidad a un sindicato.
2. **DETRÁS HAY UNA APROPIACIÓN.** Ven que el sindicato es suyo y, cuando eso es así, militan. Se trabaja desinteresadamente en un proyecto porque se cree en él. ¿De qué depende que alguien se haga militante de un proyecto como ELA? ¿Con qué enganchas? ¿Qué te motiva?
3. **A LOS CUADROS, A TODOS Y TODAS LOS QUE ESTAMOS AQUÍ: cultivar militantes.** Como otros hicieron con nosotros y nosotras. **DEDICAD LO MEJOR DE VOSOTROS Y VOSOTRAS.** Dedicad la mayor parte de vuestro tiempo a cultivar a la militancia, a buscar gente dispuesta a este compromiso. Salid, salimos, y a contarlo, a contagiar ilusión por un proyecto imprescindible para la Euskal Herria que queremos.